

Hezkuntza ministroa kezkatuta, txinatarren %30ek ez dakielako mandarinera

TXINAKO Hezkuntza ministroak adierazi du 400 milioi txinatarrek ez dakitela mandarinera, alegia Txinako Estatuko hizkuntza ofiziala. Hezkuntza Ministerioak berak onartu du dakitenen artean ere askok ez dutela ondo hitz egiten.

Alderdi Komunistak hamarkadatan mandarinera bultzatu du alderik alde, herrialdeari batasuna emateko. Ez du lortu ordea bere nahia, herrialdea ikaragarri handia delako eta hezkuntza sistema osora iristerik izan ez duelako. Bestalde, mandarinera jatorrizko hizkuntza ez duten komunitateek aurre egin diote Txinako agintarien batasun nahiari, haien nortasuna eta kultura galtzeko bidean direla argudiatuz.

Txinako agintariek txinatar edo hans hizkuntzen hiztunak (kantonera, ganera, hakker, min nana, wuera, xiangera...) eta gutxiengo nazionalak bereizten dituzte, hau da, Txinakoak ez diren hizkuntzen hiztunak (koreera, kazakera, mongoliera, uighurera, tibetera, yao- era, yia, zhuangera...).

Familia giroan norberak bere hizkuntza erabiltzeko oztoporik ez du jartzen Txinako Estatuak, baina gune formaletan, hezkuntzan eta komunikabideetan adibidez, mandarinera baino ez du onartzen. Badira salbuespenak ordea, hizkuntza gutxitu batzuetako hainbat komunitatetan, baldin eta autonomia duten lurraldeak badituzte, haien hizkuntza koofizialtzat hartzen da.

WWW.LAVANGUARDIA.COM



Balearretan TIL ereduaren aurka

Igandean, irailak 29, milaka lagun kalera atera ziren Palman, Balear Uharteetako PPren Gobernuak ezarritako TIL ereduaren kontra. Katalanezko murgiltze eredu batzertu eta gaztelania, katalana eta ingelesa neurri berean irakastea da Gobernuaren nahia. PPK adierazia du TIL ereduari esker katalanaren inposaketa bukatuko dela eta ingelesak ikasleen etorkizuna bermatuko duela. 90.000 lagun inguru bildu ziren TILen eta hezkuntza murrizketen kontra egiteko.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Murrizketek hil egiten dute

NAZIOARTEKO IKERKETA BATEN ARABERA (*Datorren bost urtetan lan merkatuan dauden aurreikuspenen gakoak*, Randstad Workmonitor) Espainiako Estatuko hamar langiletik bederatzik uste du “duela bost urte baino gehiago exijitzen dietela”, baina lanpostua ez galtzeko %94k dio “bere laneko baldintzak asetzeko edozer egiteko prest” dela. Emaiza horiek egoera dramatikoaren erakusgarri dira, lanpostua galtzeko beldurrak langileak behartzen ditu euren osasuna kaltetzen duten lanak egitera, bizitza arriskuan jartzeraino. Kontu jakina da arlo ugartan egindako murrizketek bizkorrago lan egitera behartu dituztela langileak; prekarietatea eta lan baldintzen kaskartzea ekarri du horrek. Lan osasunarentzat kaltegarria da (depresioak, gaixotasunak, suizidioak...) eta bizitzarentzat ere bai, lan-istripu hilgarriek erakusten duten gisan.

Hala, ez da kasualitatea Euskal Herrian azken hiru asteetan lan-istripuetan zortzi langile hil izana, bestalde, langabezian zegoen pertsona batek bere buruaz

beste egin du. Bistan da murrizketen ondorioz gehiago eta segurtasun gutxiagorekin lan egiten dela, jende asko prekarietateak harrapatuta baitago. Bistan da murrizketek hil egiten dutela. Bistan da kapitalismoak eta bere erreformek hiltzen dutela. Bistan da jasotako mandatuarekin itsututako gobernuak ere konplizeak eta hiltzaileak direla.

Gobernuek benetan jendartearen zerbitzura egon nahi badute —horretarako jaso zituzten botoak— ezin dute Kapitalaren aginduetara egon, ikusi dugun bezala, gaixotasunak, suizidioak eta lantegietan heriotzak eragiten dituelako. Hori eragozteko, gobernuek erreformak egin beharko lituzkete gehien dutenengandik diru-sarrera gehiago eskuratzeko. Jendarteari iruzur egingo ez dion erreforma fiskalari ekin, enplegu duina sortzen lagundu eta herri-tarren ongizatea mantendu. Hori da egin beharko luketena.

Juan Mari Arregi

